

MATERIALISMO HISTERIKOA

Gizon hori



UXUE APAOLAZA LARREA

Urriaren 2a Indarkeriarik Ezaren Nazioarteko Eguna omen da. Ezin "Indarkeriarik Gabeko" eguna izan, bestela ez dakit arnasa hartzetik harago zerbait egin ahal izango genukeen. Egun bakar batez indarkeriarik ezin erabiltzea tsunami bat litzateke sistemarentzat. Danilo Albin kazetariak Ukrainako gerrari buruzko albistean ekarri du gogora ospakizuna, aurrez aurre jarri ditugun bi herrialdeetan jazarpena gogortzen ari direlako gerrara joan nahi ez duten gizonen aurka. Titular izatea merezi izan duelako, agian, gerra horrek hainbat paradoxa jarri dizkigu begi bistan.

Gerra bera jo nahi izan genuen garaiz kanpokotzat, Errusiaren barrabaskeria anakronikotzat. Baina ez zegoen arazorik Zelenskyren gizontasuna goraiatzeko, militarrez jantzita erresistentziarako deiak eginez, armak hartu eta hiriak kalez kale defendatzekoa, gizonak. Berak izan nahi zuen soldadu horien aurpegia, film bateko militar heroikoa. Eta errefuxiatu ukrainarrek hartu zituzten pantailak, agur irudiek. Haurrarekin ihes egitera zihoan emakumea, soldadu lanak egiten geratu behar zuen gizona. "Dena alperrik izan da" bat, gauzak serio jartzen direnean, zu ama eta ni soldadu, kolpetik ezabatu dira genero rolen *ezdakitzerrak*. Audientzia Nazionalak ez omen die asilo politikorik ematen desertoreei, mutil gazte horiek gizonen rol hiltzaileena betetzeko daude, eta horregatik miretsi behar genituzke, beren herrialdearen alde hiltzen ari direla sinistuta, edo-zertarako prest daudelako. Eta hori ez da batere anakronikoa.

Azken aldian, nahiko argi dago, anakronikoaren aurkakoa dela desagertzeko bidean uste izan genuen gizontasuna. Han eta hemen. Oso lotuta ikusi ditugu berriro biziraupen batzuk; izan ere, gerra da kapitalismoaren sakoneko aurpegia, baita gizontasun mota batena ere. Beraz, arma bat ez hartu nahi izatea han, barku bat armaz kargatu nahi ez izatea hemen, bi gauza berdin dira; makinaria kapitalistari aurre egitea, gizon hori ez izatea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Pobretzea

Ehunka lagun bildu dira Baionan, erosahalmena gutxitzearen eta erretreten erreformaren kontra. LAB, CGT, FSU eta Solidaires sindikatuek deituta –CFDTk ez, ordea–, greba eguna izan da irailaren 29a Ipar Euskal Herrian. Manifestazioa burutu dute goizean Baionan eta Donapaleun ere egin dute elkarretaratzea, LABek deiturik.

Lan osasuna

ELA sindikatuak jakitera eman duenez, berak sortutako Bidelagun fundazioak salaketa jarri du Oñatiko Autlán EMD (lehengo CEGASA) enpresaren aurka, "bere langileak behartu dituelako azido sulfurikoaren hodei azidoen eta manganeso hautsaren esposizio maila onartezinetan lan egitera". Epaiaketa egin da eta epaiaren zain daude.

Gerra

Ukrainaren barnean kokaturiko Donetsk, Luhansk, Kherson eta Zaporizhia Errusiari anexionatu ahal izateko azken urratsa eman du Vladimir Putinek: Kherson eta Zaporizhia herri independente gisa izendatu ditu, dekretu bidez. Ukrainak ez du erabakia onartu eta "gogor" erantzuteko asmoa daukala argitu dio Moskuri.